



9. AKTA

2003ko uztailaren 24an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

TOKIA: Pasaiako Hirian eta bertako Udaletxean.

DATA: Bi mila eta hiruko hogeita lauean.

ETORRIAK:

Lucía Querido Noceti a.
Jesús M^a García Garde j.
Xabier Pombo González j.
Lore Suárez Linazasoro a. (zeina 10:00etan batzarreratu baita).

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño andre Alkatea.

Izaskun Gómez Cermeño andre Alkatearen presidentzian eta lehenengo deialdian goian aipatu zinegotziak bildu dira Aingeru Ezkerra Andueza funtzioz jaun Idazkaria bertan delarik, Gobernu Batzordea ospatzeko horretarako kurtsaturiko deialdiaren arabera.

Lehendakaritzak konstataturik Gobernu Batzordea legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekitzat eman du 9:15etan, ondoren Gaizerrendako gaiak tratatzeari ekinez.

1.- Gobernu Batzordeari esleipenak delegatzeaz Alkatearen ebazpenaren berri ematea.

Idazkariak 03-6-19ko Alkatearen ebazpena irakurri du Gobernu Batzordeari esleitzeko atribuzioak direla eta honela dioena:

“Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 21.3 eta 23.2.b) artikuluek eta Udal Antolaketakarako Erregelamenduko 8 b) artikuluek emandako eskumenez baliatuz, nik, alkateak

ERABAKI DUT

LEHENENGO.- Neuri dagozkidan ahalmenetatik honako hauek **Gobernu Batzordearen gain uztea:**

HIRIGINTZA SAILA

- Pasaiako Planeamenduaren Arau Subsidiarioetako 31. artikuluan zerrendatzen diren obren lizentzia-espeditenteak ebaztea, direlako espeditente horietan, kontrako txosten erabakigarriak baldin badago
- Hirigintzako kudeaketarako tresnak eta urbanizazio-proiektuak behin betiko onartzea.

KONTRATAZIOA ETA ONDASUNAK

- Mota guztietako kontratazio eta kontzesioak, euren zenbatekoa 60.101,21 € baino gehiagokoa denean eta aurrekontuaren ohiko baliabideen % 10 baino txikiagoa denean; urte anitzekoak barne direlarik hauek lau urteko iraupena baino gehiago ez dutenean. Hau guztia beti ere, urte guztietako zenbatekoak batuta gorago aipatutako portzentaia eta kopurua gainditzen ez badira. Portzentaia ateratzeko lehenengo ekitaldiko aurrekontuaren ohiko baliabideak hartuko dira kontuan.
- Mota guztietako ondasun eta eskubideak eskuratzea euren balioa 60.101,21 € baino gehiagokoa denean eta aurrekontuaren ohiko baliabideen % 10 baino txikiagoa denean; baita ondorengo kasuetan aipatzen den kostua eta portzentaia baino gehiagokoa ez den ondarearen besterentzea egiten denean ere:
- Ondasun higiezinena, aurrekontuan aurreikusia baldin badago.
- Ondasun higigarriena, balore historiko edo artistikoko izendatuak izan direnak salbu eta besterentzea aurrekontuan aurreikusia ez dagoenean.

PERTSONALEKO SAILA

- Langileen diziplina-espeditenteak bidera daitezen agintzeko, langileak ohartarazteko eta prebentzioz aldi baterako kargu gabe uzteko ahalmena.
- Udaleko langileria guztia saritu eta zigortzekoa, korporazioko funtzionarioak zerbitzutik kendu eta lan-kontratuko langileak lanetik botatzekoa ezik.



ZEHAPEN-ESPEDIENTEAK

- Zehapen-espediten ebazpena, 1398/1993ko Errege Dekretuaren bigarren paragrafoko 10.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, zeinak onartzen duen zehatzeko ahala erabiltzeko Prozeduraren Erregelamendua, trafikoa, ibilgailu motordunen zirkulazioa eta bide-segurtasuneko gaiak izan ezik.

DIRUZAINNTZA

- Dirulaguntzak ematea.

- Aurrekontuaren garapen normalaren barruan, kontu-hartzaitzako zerbitzuetan jasotzen diren fakturak onartzea

BIGARREN.- Dekretu hau Gobernu Batzordeari helaraztea, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 13. artikulua arabera: Lege hau urrtarrilaren 13ko 471999 Legeak aldatu egin du.

HIRUGARREN.- Udalbatzarrari bere lehen bileran Dekretu honen berri ematea, eta laburpen bat Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxearen ediktu-taulan argitaratzea.

LAUGARREN.- Ahalmen eta eginkizunak besteen esku uzte hau, aurrekoetan falta eta alkatearenak diren bestelako ahalmenetara hedatu ahal izango da, edo atzera bota daiteke alkateak hala erabakitzen duenean, Legeak ezartzen duenaren arabera.

Gorago utzitako eskumenak alkateak berenagatu egingo ditu araudiak hala agintzen duenean edo laguntza publikoren batek baldintzatuta berehalakoan erabaki beharra dagoenean.

BOSGARREN.- Dekretu hau, Alkatearen Ebazpen Liburuan jasoko da; eta onartu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.”

Gobernu Batzordea jakinean geratu da.

2.- Kontu-fakturen zerrenda, zka. 6/03.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du 6/03 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda ontzat ematea **BERREHUN ETA HOGEITA HAMAR MILA LAUROGEITA BAT EURO ETA HOGEITA HIRU ZENTIMO (233.081,23 euro).**



3.- Trintxerpeko “Azkuene- Ulia-Erreterria Arearen Urbanizazioa” obraren Segurtasun eta Osasunaren gehi Kalitate Kontrolaren 1. ziurtagiria.

Gobernu Batzardeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka. 1.

Obra: Trintxerpeko “Azkuene- Ulia-Erreterria Arearen Urbanizazioa” obraren Segurtasun eta Osasunaren gehi Kalitate Kontrolaren 1. ziurtagiria.

Obra Zuzendariak: Iñaki Ormazábal J. (Udal Arkitektoa) eta Jose M^a Irazusta J. (Udal Aparejadoea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA HAMAHIRU MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAIIKA EURO ETA BERROGEITA ZAZPI ZENTIMO (33.331,47).

Indarreango udal aurrekontuko 728/03 Disposamenduaren kargura.

4.- Trintxerpeko “Azkuene-Ulia-Erreterria Arearen Urbanizazioa” obraren 1. ziurtagiria.

Gobernu Batzardeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka. 1.

Obra: Trintxerpeko “Azkuene- Ulia-Erreterria Arearen Urbanizazioa” obraren 1. ziurtagiria.

Obra Zuzendariak: Iñaki Ormazabal J. (Udal Arkitektoa) eta Jose M^a Irazusta J. (Udal Aparejadoea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA HAMASEI MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA BAT EURO ETA HOGEITA ZAZPI ZENTIMO (36.441,27 euro).

Indarreango udal aurrekontuko 367/03 Disposamenduaren kargura.

5.- Gizarte Larrialdiko Laguntzetan modifikazioak.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduranak 2003ko uztailaren 7, 9, 10 eta 14an aurkeztutako proposamenak, Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoei buruz, hurrenez hurren 2/03, 3/03, 1/03 eta 2/03 proposamenei dagozkienak, Gobernu Batzardeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U



LEHENENGO.- Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoei buruz, espedientean agertu eta hurrenez hurren 2/03, 3/03, 1/03 eta 2/03 onuradunei dagozkien proposamenak modifikatzea seinalatzen diren arrazoiak direla eta, berrietan agertzen diren kantitateak anulatuz.

BIGARREN.- Aipatu zenbatekoak Gizarte Larrialdiko partidara atzera itzultzea.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontuhartzaitzako Sailari ematea.

6.- 03-5-22ko Gobernu Batzordearen akordioko okerra zuzentzea.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunaren 2003ko uztailaren 2ko txostena, non adierazten duen 2003ko maiatzaren 22ko Gobernu Batzordearen akordioan oker material bat aurkitzen dela, 6. puntuan, “Jubilatuena Etxeei subentzioa”, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

Aipatu okerra zuzentzea hurrengo eran:

“ZAHARREN BILTOKIA – Pasai San Pedro-8.878,68 euro” dioen lekuan
Esan behar du: “ZAHARREN BILTOKIA – Pasai San Pedro-8.787,68 euro”

7.- Obra lizentzia eskatzea, Ulia etorbidea, 18.

Ikusirik 2003-6-11ko instantzia, non Ulia etorbideko 18ko komunitateak eskatzen duen OBRA TXIKIAK EGITEKO LIZENTZIA eraikinean erreforma lanak exekutatzeko, hots, eskailera-kutxa aireztatu eta argitzen duten aluminiozko leihoak kentzeko eta fatxada ixteko aipatu hutsuneetan pabeak jartzeko aireztapenerako bi hutsune utziz, horretarako aldazio metalikoak jarri behar direlarik kanpotik eta barrutik eskailerak eta astoak.

Ikusirik teknikariak luzatutako txostena ezezkia emanez, non adierazten duen seinalaturiko obrak eraikinaren fatxadak tratatzeko modifikazioari buruzkoak direla, kasu honetan arotziaren diseinua aldatuz, hots, pabeekin ordezkaturik, fatxadako hutsuneen itxiturak modifikaturik.

Ikusirik aurkezturiko aurrekontua 2.260,00 eurokoa dela.

Kontuan izanik 2003ko ekainaren 19ko Alkatetzaren Dekretua, zeinen bidez eskuduntzak delegatzen baitzaizkio Gobernu Batzordeari.



Hirigintzako Teknikariak 2003ko uztailaren 9an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Ulia etorbideko 18ko jabekideen komunitateari obra txikiak egiteko lizentzia ukatzea eraikinean erreforma lanak egiteko, hau da, eskailera-kutxa aireztatu eta argitzen duten aluminiozko leihoak kendu eta fatxada ixteko aipatu hutsuneetan pabeak jartzeko aireztapenerako bi hutsune utziz, zeren eta Hirigintz Ordenantzetako 084.3 artikulua kasu guztietan eskatzen baitu trataera unitario eta homogeneoa eraikinen kanpo aldean, eta eskatu den aktuzioak hautsi egiten du kriterio hau bai eraikinaren ezaugarriengatik bai eta inguruko eraikinenengatik.

BIGARREN.- Behar bezala jakitera emango zaizkion udal eskubideak likidatzea.

HIRUGARREN.- Ebazpen honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioak jakinaraziz.

8.- Obra lizentzia eskatzea, Azkuene kaleko 44.

Magdalena Mataran Torrente andreak 2003ko ekainaren 16an eskatu zuen obra txikiak egiteko lizentzia fatxada eta etxerako sarbidea eraberritzeko Azkuene kaleko 44an.

Aipatu eraikina Pasaiako Arau Subsidiarioen Area Urbana Azkuene Goia 2.09.02 delakoan aurkitzen da.

Area Urbana Azkuene Goia 2.09.02ko barneko Erreformaren Plan Berezia erredaktatzeko lanen adjudikatarioa den LKS, Ingenieria enpresak 2003ko maiatzaren 16an aurkeztu zuen dokumentua, zeinak Udal Zerbitzu Teknikoen eranskinarekin batera aurrerapen gisa balio baitu, aipatu eremuari dagozkion Arau Subsidiarioak puntualki modifikatzen hastzeko.

RPko 117. artikulua erabakitzen du planak hasiera batean onartzeko organo kompetenteak “emandako lizentziak suspenditu ahal izango dituela” eta “c) bere iraupena ezin izango dela urtea baino handiagoa”.

Kasu honetan ez da bidezkoa eskaturiko lizentzia ematea, geroko arautegia hipotekatua gera ez dadin.

Gobernu Batzordea da organo kompetentea obra lizentziak erabakitzeke txostena ezezkoa balitz, atribuzioen delegaziorako Alkatetzak ekainaren 19an emandako Dekretuaren arabera.



Hirigintzako Teknikariak 2003ko uztailaren 9an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Magdalena Mataran Torrente andreari Azkuene kaleko 44ko fatxada eta etxerako sarbidea eraberritzeko obra txikiak egiteko lizentzia ukatzea, zeren eta eremuari buruzko Pasaiako Arau Subsidiarioak puntualki modifikatzeko izapideari ekin baitzaio.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

9.- Ixteko ordutegia ez betetzeagatik espediente zigortzailea, Terranova, 3, Chernovil Taberna.

GERTATUEN AURREKARIAK

LEHENA.- Alkateak 2002ko maiatzaren 27an ebazpena eman zuen Chernovil pub-eko jabea den Jose María Mayán Cortejosoren kontra zehapen-espedienteari hasiera eman ziona. Udaltzaingoak egindako ordutegi-aktaren arabera, taberna maiatzaren 19an goizeko 6,20etan irekita zeukan, eta barruan bederatzi pertsona zeuden; tabernan sartu-irtena egiteko ez zegoen eragozpenik, eta edariak zerbitzatzen ari ziren.

Aurreko horrek ondoko arauak urratzen ditu: 296/1997 dekretuan, abenduaren 16koa, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolasen Ordutegiari buruzkoa; eta, 210/1998 dekretuan, uztailaren 28koa, aurrekoa aldatzen duena. **Timón** bezelako taberna bereziak 3:30etarako itxiak egon behar dira.

BIGARRENA.- 2002ko maiatzaren 31an jakinarazi zitzaion espediente honi hasiera eman zion ebazpena, hamabost egunetako epea emanez alegazioak idatziz aurkezteko. Ekainaren 11n alegazio idatzi bati eman zion sarrera eta bertan esaten du egun horretan eta ordu horretan berea ez zela irekita zegoen ostalaritzako establezimendu bakarra eta lokalarengatik errenta altua ordaindu beharra duela eta horretarako ordu gehiago sartu beharra daukala.

HIRUGARRENA.- 2003ko azaroaren 4ean erruztatuari entzuna izateko aukera ematen zaio akordio-proposamen hau egin baino lehen. Jakinarazpena 12an jaso zuen eta emandako epean ez du ezer adierazi.

PROBATUTZAT JOTZEN DIREN GERTAERAK

Probatutzat jotzen da Jose María Mayán Cortejoso, Pub Chernovil-eko jabeak taberna maiatzaren 19an goizeko 6,20etan irekita zeukala, eta barruan bederatzi pertsona zeudela; tabernan sartu-irtena egiteko ez zegoen eragozpenik, eta edariak zerbitzatzen ari ziren.



ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- Aipatutako gertaerak eta inputatuaren erantzunkizuna egiaztatuak izan dira Udaltzaingoak 2002ko maiatzaren 19an egindako aktaren bitartez. Halaber alegazioetarako emandako idazkia epe barruan aurkezturik, gertatuak probatuak daude Udaltzaingoaren aktan.

BIGARREN.- Jendurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituen azaroaren 10eko 4/1995 legearen 34 g) atalaren arabera, honako gertaera hauei zigor arina dagokie: “ikuskizunen hasiera edo amaiera atzeratzea, edota ikuskizun nahiz jolas jardueretako lokalak irekitzeko eta ixteko orduak ez errespetatzea”.

Lokalak irekitzeko eta ixteko orduak honako dekretuetan arautzen dira: 296/1997 dekretuan, abenduaren 16koa, Jendurreko Ikuskizun eta Jolasen Ordutegiari buruzkoa; eta, 210/1998 dekretuan, uztailaren 28koa, aurrekoa aldatzen duena.

HIRUGARRENA.- Urraketa horren erantzulea José María Mayán Cortejoso, Pub Chernovil-eko jabea da.

LAUGARRENA.- Aipatutako legearen 35.3 eta 36 ataletan zehazten da lege urratze arintzat jotako kasuetan aplikagarri direla 200.000 pezetarainoko zigorrak, eta kasu honetan proportzionala da 30.000 pezetatako isuna jartzea, kontutan hartuta ez dela herritarren aldetik salaketarik jaso.

BOSGARRENA.- Prozedura honi jarraiki erabakia hartzeko eskumena duena Gobernu Batzordea da Alkatearen 2003ko ekainaren 19ko Erabakiaren arabera, Gobernu Batzordearen esku uzten dituen eskumenak arautzekoaren arabera.

AKORDIOA

LEHENENGO.- Pub Chernovil-en jabea den José María Mayán Cortejoso Jauna zigortzea, 180,30 euroko isuna ezarriz, 4/1995 Legeko (azaroaren 10ekoa, jendurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituen) 34 g). atala urratzeagatik. 2002ko maiatzaren 19an Chernovil bezelako taberna berezia 2:00etarako itxia egon behar zuen 296/1997 Dekretuaren arabera, eta 6:20etan irekia zuen, barruan bederatzi pertsona zeuden; tabernan sartu-irtena egiteko ez zegoen eragozpenik, eta edariak zerbitzatzen ari ziren.

BIGARREN.- Jakinaraztea ixteko ordutegia urratzeagatik espediente zigortzaile gehiago irekitzen bazaio, zigorrak asko haziko zaizkiola.

HIRUGARREN.- Akordio hau inputatuari jakinaraztea beraren kontra jar daitezkeen errekurtsoen berri emanez.

- Gaizerrendatik at eta bertako zinegotzien aho batez erabakirik aurrez bertan sartzea, hurrengo akordioak hartu dira:

10.- “Antxo Iparra 01 (C-8 fasea) Hiri Eremua berriro urbanizatzea” obraren 1. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak, Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka: 1.

Obra: “Antxo Iparra 01 (C-8 fasea) Hiri Eremua berriro urbanizatzea”.

Obra Zuzendariak: ASMATU, S.A. eta Juan Karlos Lapazaran (Arkitektoa).

ARKAITZA, S.A. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HIRUROGEITA HAMABOST MILA LAUREHUN ETA HIERUROGEITA BAT EURO ETA HIRUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (75.461,76 euro).

Indarreango udal aurrekontuko 342/03 disposamenduaren kargura.

11.- “Donibanen Puntetako Pasealekuari dagokion urbanizazioa” obraren 2. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak, Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 2.

Obra: “Donibanen Puntetako Pasealekuari dagokion urbanizazioa”.

Obra Zuzendariak: Joan Karlos Lapazaran – Arkitektoa (ASMATU), Mikel Galarraga (ASMATU) eta Jose M^a Irazusta (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A. enpresa kontrtatistaren alde.

Zenbatekoa: LAUROGEITA HAMALAU MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAIIKA ZENTIMO (94.579,71 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-2394/03 eta D-2395/03 Disposamenduen kargura.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 10:15etan, batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate andreak eta nik, funtzioz Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.

